

Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa

**EROSKI-K ETA NAGRIFOODEK IRAUNKORTASUNAREN
GAINEKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA BAT ANTOLATU
DUTE EKOIZLEENTZAT NAFARROAN**

- **2024ko ekainean abiatu zen "Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa" Nafarroako Foru Erkidegoan, eta helburu du balio katea gaitzea iraunkortasunaren arloan. Gaur egun, Nafarroako 48 ekoizlek parte hartzen dute**

Elorrio, 2025eko ekainaren 12a.– [EROSKI](#)k eta [NAGRIFOOD](#)ek programa berri bat jarri dute abian, Nafarroako ekoizleek prestakuntza jaso dezaten iraunkortasunaren arloan. EROSKIren *Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa*-ren parte da ekimena, eta asmoa da balio katea gaitzea iraunkortasun gaitetan.

Sei egun antolatu dituzte 2025ean egiteko, eta aukera egongo da aurrez aurre nahiz online parte hartzeko. Gaiak, berriz, honako hauek izango dira: janaria alferrik galtzea, baso soiltzea, karbono aztarna, ontzien ekodiseinua, ura eta energia, eta, azkenik, gizarte dimentsioa eta gobernantza. Gai horiek lantzeko, hitzaldiak, mahai inguruak eta kasu praktikoak izango dira.

2024ko ekainean abiatu zen EROSKIren "Tokiko hornitzaileei lagun egiteko programa" Nafarroako Foru Erkidegoan NAGRIFOODen laguntzarekin, eta gaur egun Nafarroako 48 ekoizlek parte hartzen dute. Nekazaritzako elikagaien ekoizle txikientzako zerbitzu bat da, helburu duena haiei laguntzea ingurumenaren, gizartearen eta gobernu korporatiboaren aldetik. Horrekin, EROSKI erraztasunak ematen dizkie egokitu egin daitezen arau betebeharrak berrietara eta kontsumitzaileek iraunkortasunaren arloan egiten dituzten eskari gero eta handiagoetara.

Asmoa da EROSKIren ezagutza eta konpromisoa handitzea tokiko hornitzaileekin eta haien ingurunearekin, eta haiei prestakuntza eta babesa ematea, beti izan dezaten nola hobetua ekoizpen sistema iraunkoragoetarako; eta, horrekin batera, lagun egitea eta gidari izatea, produktuek kalitate handiagoa izan dezaten eta horniketa katean gardentasun handiagoa lor dezaten.

Programaren lehen jardunaldia

Ekainaren 3an, programaren lehen jardunaldia izan zen, eta EROSKI Nafarroan egindako diagnostikoaren emaitzak erakutsi zituzten. Horien artean, nabarmentzekoak kalkuluarekin erlasionaturiko lehentasun eremuak eta karbono aztarna gutxitzea, ontzien ekodiseinua eta uraren kontsumoa gutxitzea.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Era berean, Elikagaien Galtzearen aurkako Lege berria aztertu zuten. Alde horretatik, [Alimenta Valores](#)-eko bozeramaile Silvia Rosek haxe azpimarratu zuen: "Lege berriak behartuko gaitu sarean jokatzera, nekazaritzako elikagaien sistema eraldatzeko. Hartan, zehaztuta datoz kateko eragile guztiek dituzten betebeharrak".

EROSKIren Iraunkortasun arloko arduradunak, Cristina Rodriguez Domingok, honela esan du: "Funtsezkoa da gizarte eragileekin lankidetzan aritzea; ildo horretan, EROSKI 2.600 tona janari baino gehiago ematen ditu dohaintzan, Zero Hondakin programari esker. Banaketa handiaren erronka handietako bat zera da, GKEak eskura egotea egunero bilketak egin ditzaten, janaria dendetan atomizatuta dagoelako eta soberakin kopuru txikia sortzen delako horietako bakoitzean".

[AENOR](#)eko ordezkari Juan Jose Moreno Delgadok, berriz, haxe nabarmendu du: "Zertifikazioan dago koska janaririk alferrik ez galtzeko, baita erakunde baten eta haren bezeroen artean konfiantza sorrarazteko ere". Ildo berean, ACMPko bazkide eta proiektu zuzendariak, Iosu Palaciosok, haxe gogorarazi zuen: "Murrizketak gutxituta kostuak gutxitzen dira: nahitaezkoa da eguneroko kontrola". Horretaz gainera, [NARIA](#)ko CEO eta fundatzaileak, Kilian Zaragozak, haxe jarri du balioan: "Soberakinekin era positiboan eragiten dugu bai gizartean eta bai ingurumenean" eta haxe gaineratu: "Legeak aukera ematen du eredu eraldatzeko, ez da betebeharrak hutsa".

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
PATRICIA MARTIN SANCHIDRIAN

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

Online prentsa aretoa